

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Bake Epaitegiko Bake-Epaile titularren eta ordezkoren lanpostuak betetzeko deialdia

Botere Judizialaren Lege Organikoko 101 eta 102 artikuluetan ezarritakoa betez, eta Bake-epailei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Araudiaren 5. artikuluan ezarritakoa betez, udalbatza honek honakoari ekingo dio: Zigoitiko bake-epaitegirako 4 urterako bake-epaile titularra eta ordezkoa aukeratzeari, ondoren Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu-aretoari proposamena egiteko.

Hautagaitzak aurkezteko interesa dutenek udal-bulegoetan egin dezakete, iragarki hau ALHAOn aurkezten denetik 30 egun naturaleko epean.

Ezinbesteko baldintza izango dira, Botere Judizialaren Lege Organikoan ezarritakoarekin bat eginez:

- Adinez nagusia izatea.
- Espainiar nazionalitatea izatea.
- Zigoitia udalerrian erroldatuta egotea.
- Ezgaitasun edo bateraezintasunagatik auzipetuta egotea.

Ezgaitasun auziak honakoak dira (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. artikulua): funtzio judizialerako eragozpen fisiko edo psikikoak izatea, engainu-delitu bidez zigortuta egotea eta errehabilitazioa jaso gabe izatea, engainu-delitu bidez zigortuta egotea eta absolbitu gabe artxibatze-autorik jaso gabe egotea, eta eskubidez zibilen jabetza osoa ez izatea.

Bateraezintasun auziak honakoak dira (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 389. artikulua): botere judizialarena ez den edozein jurisdikziotan jardutea, herri-hautaketa bidezko karguak edo estatuaren, autonomia erkidegoen, probintzien, tokiko erakundeen eta beraien menpeko edozein erakunderen izendapen politikoak; Estatuaren Administrazioak, Gorte Nagusiek, Errege-etxeak, Erkidego autonomoek, probintziek, udalerriek edo beraien menpeko erakunde, organismo edo enpresek ordaindutako lanpostu edo karguak; edozein jurisdikziotako edo aholkularitza juridikoko auzitegietan edo epaitegietan edozein eratako lanetan aritzea.

Era berean, Bake-epaileak ezingo dira alderdi politiko edo sindikatuetaiko kide izan, edo ezingo dute beraien menpeko lanposturik izan. Debekatuta izango dituzte Botere Judizialaren Lege Organikoaren 395. artikuluan zehaztutako jarduerak (3/1995 araudiaren 23. artikulua):

Eskabidearekin batera, ondorengoak aurkeztu beharko da:

1. NANaren fotokopia.
 2. Aurrekari penalik ez izatearen ziurtagiria.
- Jakitera ematen da, zabalkunde orokorrerako.

Ondategin, 2026ko martxoaren 20an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA